

AZKEN SORGINA

Inkisitzailearen atzapar odolegarriak
iraizitako garrasi etsia

Anbototik Jaizkibela
Aitzkorritik Orira

dantzuke oraindik ere,
gaur, oraintxe ere,
sasi-gain eta lainopetan.

Odol gorriegia oraindik ere
gogoeta krudelak blaituz;
odol beroegia kale kantoitan
iragan amaigabea orainean irakinez.
Eta... malko gaziz erretutako zirrarak.

Lehengoak eta oraingoak dira
negar eta hasperenok;
oraingoak eta inoiz gehiagokoak
begi izutuen mintzo zaurituak.
Garrasiaren oihartzuna etengabea da
bihotz urduri geldiezinetaraino.

Mendietan, otsoak uluka;
ortzean, ilargia lantuka;
bazterretan, txalapartak ttakunka,
eztarri amorratuak irrintzika.

Inkiszio Saindua,
inkiszio zaindua,
inkiszio bedekatua.

Odol-borborraren durundia
hagitz da bortitza

Anbototik Jaizkibela
Aitzkorritik Orira.

Azken sorgina erretzen dira ari,
Jainkoaren izenean.
Erresinularen kantua ito nahi.

*JOXE JUAN UGALDE ORDOKI
"MUNTAR"*

